

ORIGINALAK BIDALTZEKO EGILEENTZAKO JARRAIBIDEAK

‘Erdi Aroko arkeologia dokumentuak’ bilduma Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateak sortu zuen 2009an, eta haren xedea Arkeologiaren eta Historia postklasikoaren arloko monografiak, bilkura aktak, tesiak edo memoriak argitaratzea da, kalitate irizpideei jarraitua. Euskaraz, gaztelaniaz, ingelesez, frantsesez, portugesez, italieraz eta alemanez idatzitako testuak onartzen dira, eta lan argitaragabeak bakarrik argitaratzen dira. Gaiak Europa mailako ikuspuntu konparatutatik landu behar dira.

Testua

Originalak euskarri digitalean aurkeztuko dira doc, docx edo rtf formatuetan, eta A4 tamainan (29x21 cm). Testuan ez dira irudiak sartuko, baina taulak, bai. Era berean, lanaren kopia oso bat erantsiko da paperean, atal grafiko osoa izango duena.

Testuaren aurretik, 200-300 hitzeko laburpen bat agertuko da, eta 5 gako hitz, ingelesez eta testuaren jatorrizko hizkuntzan. Gako hitzetan ez dira sartuko izenburuan dauden terminoak.

Atzerriko edo latinezko lokuzioak letra etzanean jarriko dira, eta hitzez hitzeko aipuak, berriz, komatxo artean.

Irudiak eta taulak

Erdi Aroko arkeologia dokumentuak zuri-beltzean argitaratzen da; beraz, irudiak modu egokian tratatuko dira beren erreproduktzioarako.

Irudien eta taulen arteko bereizketa egiten da, eta aparteko numerazioa izango dute. Hainbat kapitulu izanez gero, irudien eta taulen numerazioa elkarren segidan egingo da, kapitulu bakoitzean. Testuan irudiak eta taulak jartzeko leku onena zein den adieraziko da, erreferentziak barne (1. irud.; 1. taula).

Taulak eta grafikoak xls edo xlsx formatuan entregatuko dira. Irudiak jpeg edo tiff formatuan entregatuko dira, gutxienez 300 dpi-ko bereizmenez.

Ezinbestekoa da taulen eta irudien zerrenda osoa ematea, eta, hala behar bada, bakoitzaren dimentsioak adieraztea (zutabe bat, bi zutabe, orri osoa).

Aipu bibliografikoak

Amerikar sistemari jarraituta, erreferentzia bibliografikoa testuaren gorputzean txertatuko da, esate baterako, Brogiolo (1988) edo (HOCHKIRCHEN, 1995: 32) edo (CHAPELOT, FOSSIER, 1980).

Hiru egile edo gehiago direnean, lehenengoa bakarrik aipatuko da, eta ondoren *et alii* alokuzioa jarriko da (QUIRÓS CASTILLO *et alii*, 2008).

Webguneak aipatzen badira, kontsulta zer egunetan egin zen adieraziko da, esate baterako: <<http://www.sedecatastro.gob.es/>> [2010eko azaroaren 2an kontsultatuta].

Bilduma:
Erdi Aroko arkeologia dokumentuak

Amaierako bibliografian testuan aipatutako lan guztiak sartuko dira, hurrenkera alfabetikoan (kronologikoki, egile baten obra bat baino gehiago daudenean, eta sekuentzia erreferentziak erabilita, urte bereko obra bat baino gehiago direnean):

Liburua:

WARD-PERKINS B., 2005, *The fall of Rome and the end of civilization*, Oxford.

Liburu kapitulua:

RIBERA A., ROSELLÓ M., 2000, El primer grupo episcopal de Valencia, *Los orígenes del Cristianismo en Valencia y su entorno*, Valentzia, 165-185 or.

Chapelot J., 1993, L'habitat rural: organisation et nature, M. DEPRAETÈRE-DARGERER, M. PETIT (eds.), *L'Ile-de-France de Clovis à Hugues Capet du Ve siècle au Xe siècle*, Paris, 178-199 or.

Aldizkari artikulua:

ALBERTI A., BALDASSARRI M., 1999, Per la storia dell'insediamento longobardo a Pisa: nuovi materiali dell'area cimiteriale di piazza del Duomo, *Archeologia Medievale XXVI*, 369-375 or.

DÍAZ DEL RÍO P., 2004, Copper Age ditched enclosures in Central Iberia, *Oxford Journal of Archaeology* 23.2, 107-121 or.

Aktetako artikulua:

Lecanda Esteban J.A., Palomino Lázaro A., 2001, Dos modelos de ocupación del territorio en la época visigoda en la provincia de Burgos: la región montañesa septentrional y la comarca ribereña del Duero, *Actas del V Congreso de Arqueología Medieval Española*, Valladolid, 1. lib., 37-48 or.

GELICHI S., LIBRENTI M., 1997, L'edilizia in legno altomedievale nell'Italia del nord: alcune osservazioni, S. GELICHI (ed.), *Atti del I Congresso Nazionale di Archeologia Medievale*, Florencia, 215-220 or.

Datazio erradiokarbonikoak

Datazio erradiokarbonikoak BP urtetan adieraziko dira, eta aipatuko dira ere laborategiaren erreferentzia, datatutako materiala eta 1 eta 2 sigmara kalibratutako data, cal AD adierazita.

TL datazioak

Taula espezifikoa bat sartuko da, datu hauekin:

Aztarnategia/testuingurua	Laborategi erref.	Analisi urtea	BP datazioa	DC urteak (atalasea)	Proposatutako datazioa

Eskubideak

Argitalpen eskubideak Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearenak dira, eta bilduma honetan argitaratzeak ez du ematen ordainketarik jasotzeko inolako eskubiderik.